



# URRIRIK

**G**OYEN bian ari zuben eudi jasa ikaragarria, bideak urez anpatuak zeuden, ezer legorrik etzan arkitzen; ta ala ere Joše Biškar, abarketa zar batzuekin zebillen, ura alde guzietatik sartu ta abarketa muturretik beatzakin batian zijoakiyola.

¡Artuko zitukian bada oñetako on batzuek! ¡Chibotik ez ordia!

Zapatagille baten erakustokian ageri ziran oñetako yayuak, bai gizonentzako erakoak baita ere emakumentzako jatorrak.

Emakumeen oñetakoak ikustekoak ziran. Batere gezurrik esan gabe izango zituzten bakoitzak kana terdi luzeko zurruma edo *takoyak*.

Etzayote berialakoan urik sartuko, zion Joše Biškar'ek, tillape edo *killa* laburragoarekin ibiltzen dira makiñabat itsasontzi. Ez daukate nere abarketaren antzik. Ederki emango nuke gero nik onlako batzuek oñetan nitukela.

Onela bazegon ta bazegon Joše Biškar zapatagillearen erakustokiari begira, burutik oñetara ura zijoakiyola, chinta legorrik etzeukala ta ala ere geruago ta gogotsuago oñetako ayeidi begira.

Zapategiko nagusiyak ikusi zuben, ta berarekin par puska bat egiteko asmoarekin deitu ziyon esanaz:

—Mutill, urtuko aiz or, eta sartu ari barrenara piska bat chukatsera; ortik ikusten dekana, barrendik obetuago ikusiko dek.

Eta bere abarketa zarrak erakutziyaz eta beatz muturrak azalduaz, erantzun zion Joše Biškar'ek:

—Ez; onelako oñetakorik ote zenduten begira negon.

—Orrelakorik ez diagu edukitzen egiñik; biar danian, neurrira egi-ten dizkiagu. Sartu adi ta itz egingo diagu.

Nai ba zuben ta nai ez bazuben an sartu zan gure Joše Biškar ura chirriyoan zijoakiyola, ezin ezer ukuitu plei usten zubelako, ezin iño-ra aldendu urtan jartzen zalako.

—Mutill, ¿nun dek euritakoa?

—Orainchen eraman det kirten berriya jartzera.

—I bezelako kirtenik ez dek bada arkituko.

Gero zapatagilleak erakutzi zizkan mota guzietako oñetakoak. Ba zegon anchen zer ikusiya. Lenago ura bazijoakiyon Joše Biškar'i, orduban baba ta lerdia zijoakiyon españetatik bera.

—Abechek dituk iretzat ederrak, ziyon zapatagilleak, bi oñetako aldi gain gañekoak erakutziyaz.

—Ala da baña, kukurruku egingo dute abek.

—Etzakala uste, oso merkiak dituk. Oñetako biko onetan, batek berrogei ta bost pesta baliyo dizkik ta bestia urrian; ta beste onetan berri-zei batek berrogei ta amar ta bestia urrian.

—Badakizu gero, ziyon Joše Biškar, urrian esaten dizkiatzun abek, gogokuak iduritzen zaizkiala.

—Bai baña, lagunak, esan diatan bezela, batek berrogei ta bost pe-seta, ta bestiak berrogei ta amar baliyo dizkitek.

—Ori orrela izango da baña.....; ta, aitaren ta semiaren egin baño len, urrian zirala esan zizkion bi oñetakoak jantzi zituen ta, lasterka biziyan irten zan zapatagilleen dendatik.

Zapatagillea amorro biziyan asi zan bere ondotik; baña, ¿zeñek ura arrapatu?

Une arretan zaitzalle bat agertu zan iškiñan, ta zapatagilleak Biškar gelditu azitzeko oju egin zion.

Onek ordia esan zion korrika apustura zutela, ta izoki arrek chiništu ta utzi egin ziyon.

Eta ala gelditu zan zapatagillea urrian zirala esan zituben oñetako ayeck gabe, ta beren ordañian Joše Biškar'en abarketa zarrakin.

A. DARRA